

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko otsailak 26 / III. urtea / 64. zenbakia


Zubian barna

Nekazal kooperatiben birmoldaketa, itxaropena unerik beltzenean

Lehendabiziko bileren amaieran, 1908 aldera, orduan ere oraingo ustea zegoen zabaldua Nafarroako nekazal kooperatiben artean: «Nekazaritza krisian dago». Urte asko pasa dira eta gehiago landatu, jaso eta galdu ere, galdu egin dira uztak, eta nekazaritzak krisian dirau. Hala ere, oraingoa besteak baino larriagoa dela ezin uka, eta elkarte gehienak biltzen duen erakundearen presidentek garbi dio: «Inoizko larrialdirik handienaren aurrean gaude».

Kooperatiben mugimenduak garrantzi handia izan du betidanik foru lurraldean, eta nekazaritza munduko arlo garrantzitsuak —ardogintza, laborantza— kooperatiben eskuetan izan dira eta daude oraindik. Herrietan sustraituta eta nekazarietako oso hurbil, txikiak eta xumeak dira gehienak, eta beren marka edo ezaugarriarekin bandera egin dute askok. Europako Komunitateko Nekazaritza Politikaren aldaketak, ordea, ez du atzera begira egoteko betarik ematen, eta birmoldaketaren beharra azpimarratzen dute adituek, produkzioaren murrizketa eta prezioen jaitsierari aurrera egin ahal izateko.

Hori izan da, hain zuzen ere, egunotan Iruñean egin den mintegiaren helburua, UCAN elkarteak antolatuta. Kezka beti ere, eta batzuetan itxaropena, nekazaritza munduan.



ANDER GILLENEA



BINGEN AMADOZ

Zirt zart, abarrak aidean dabiltza Unanun. Xalto egin zan neskatoa, xalto eta laisterkan gora ta behera, inhauteriko mamuxarroak heldu baitira.

Begigorri, urtean behin etorri. Unanukoek behintzat, ezin jakin nolakoak dituzte begiak, baina hala dio koplazaharrak. Zerbaitengatik izanen da. Andiapeko maldetan hotza egiten du negu partean. Xaltokan ibili, ta hainbeste korrika karriketan barna, hotza kentzeko pattarra pixkat edanda, errex gorrituko dira begiak karearen atzean. Kolorea bakarrik ez, ongi asko estalirik dute begi horiek nahiak eta gau ta eguneko ametsak, desio ezkuak, maskararik gabe nekez ageriko liratekenak.

Bainan txuri ta gorritz berdintzirik daudenak, aurpegia metal zaharraren atzean ongi gordeta dutenak aise darabiltzigu algaraz, ausarti, honi zirikatu, harengana hurbilduz.

Anonimatoa lagun, eskua ere luzeago bihurtzen da, xirria egi-tea errexago, gertutasun goxoa.

Inhauteri lizuna, araudiak eta egunerokotasuna, lotsak eta ohi-tura hotzak hausten dituen hori, izan zaitez ongi etorria!

Garai iluneko agintariek debekuak agindu dituzte zure aurka eta apaiz buru-okerrekoek ere mila madarikazio bota dizkizute gainera. Beraz, ez zara gauza txarrik izanen.

Urteetan zehar, kontrakoak zeintzuk izan dituzun jakitea aski da esateko beharrezko zarelainhauteria. Hori bai, egin zaitez mixtoa, neskatoen begietan ere antzeko desio izkutuak gordetzen dira eta. Gozamen eta askatze-egunak denentzat izan daitezela.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Koldobika Jauregi artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Kribia galerian, martxoaren 6a arte. Gipuzkoako artistaren eskulturak lanegunetan arratsalde eta jaiegunetan goizez ikus daitezke Goroabe kaleko aretoan.

Javier Zudaire pintorearen lan erakusketa zabalik dago Tafallako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, martxoaren 3a arte. Tafalla bertako artista honen lanak ohizko orduetan ikus daitezke eta bertako Kultur Patronatoak antolatuta du.

ZINEMA



'Jaque al asesino' izenburuko pelikula ikusgai egonen da datorren ostegunean, martxoak 4, Tafallako Español zineman. Emanaldia bi saio izanen ditu, arratsaldeko 8.00etan eta gaueko 10.30etan. Herriko Kultur Patronatoak antolaturik, sarrerak 175 pezetatan salduko dituzte.

'Hook' izeneko pelikula eskainiko dute asteburu honetan Tafallako Español zineman, haurrentzat zuzendutako zikloaren barruan. Kultur Patronatoak antolaturik, larunbateko emanaldia arratsaldeko 18.00etan izanen da, eta igandekoa, berri, 15.45etan. Sarrerak 75 pezetatan salduko dituzte.

'Amor al primer mordisco' izenburuko pelikula ikusteko

ERRAN DUTE

Udal talde sozialistaren erabakia eta jarrera espainiar nazionalismo fundamentalistaren islada izan da».

Miren Egaña
HBko zinegotzia

«Nafarroako Gobernuaren jokabidea ez da batere demokratikoa».

Fermin Ziaurritz
Eako parlamentaria

«Hutsegiteak garesti ordaintzen dira futbole».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea

«Txapelketan parte hartuko duten jokalariek guztien artean ez dago Retegiri irabaziko dionik».

Ladis Galarza
Pilotaria

Astun, eskiatzaileen paradisia

Igande honetako txangoak Astun-era joateko aukera emango digu, Napar Mendizale Federakundeak antolatzen duen ohizko ateraldiarekin. Astun, eskiatzeko tokia ez ezik, mendian ibiltzeko leku ederra ere bada. Pirinioen erdian kokaturik, zirko ez ohizko bat da, mendi guztiak leun eta borobilak baitira. Mendi zaharrak.


Iruñeko autobus geltokitik aterako gara goizeko zazpiretan, eta Astunen eskiatzeko dagoen pistatik bertatik hasiko gara ibiltzen. Hortik iparraldeko norabidea hartu behar dugu eta bide osoan zehar horri eutsiko diogu. Aldapa bat gáindituz, Ibon de Eskalar-eraino helduko gara. Ibon hau lautada eder batean dago kokaturik. Ibona zeharkatu ondoren, buelta emanez, atzera begiratzeko aukera paregabea izango dugu: Aspe, Bisaurin, Llana del Bozo, Collarada, etab. Leku egokiena hamaiketako egiteko.

aukera dago gaur, otsailak 26, Nafarroako Museoa dagoen aretoan. Nafarroako Gobernuak antolatu duen 'Vanpiros de pelikula' zikloaren azkeneko filma da hau, eta arratsaldeko 7.30etan izanen da.

BESTELAKOAK



'Dumelang Botswana' izenburupean diapositiben emanaldia antolatu du gaurko, otsailak 26,



Hortik, eta Pico de Astun eta Pico de Belouseiche alde batera utziz, lepo bateraino helduko gara, Desmoines izeneko. Aurrean daukagu Frantziako

Pirinioak, Midi de Ousseu tartean, eta lepoa pasa ondoren, nahiko erreza dugu gailurra lortzea, eskalada txiki baten bidez.

Nafarroa Kirol Elkarteak. Proiekzioa arratsaldeko 8.00etan izango da Elkarteak Jarauta kalean duen aretoan, eta Alberto Ortigosa da emanaldia zuzenduko duena.

MENDI IRTEERAK



Hirumugarrieta mendira joateko aukera eskaintzen du Irurtzungo Atakondoako Mendizaleak Elkarteak iganderako, otsai-

lak 28. Egun osorako izango da eta goiz goizean aterako dira. Informazio gehiago nahiez gero, 50 02 01 telefonora deitu.

Mendiko txirindularitzaz egingo den martxa bat antolatu du biharko, otsailak 27, Irurtzungo Atakondoako Mendizaleak Elkarteak. Arduraduna Ramon Dorronsoro izanen da, 50 07 80 telefono zebakia duena, eta ibilaldia 'Balcon de Pilatos' Urbasako tokira izanen da.

ASTEKO PERTSONAIK

Diyan Angelov



Osasunako jokalaria

Osasunako jokalariek bulgariarrek zeresan ugari eman du azken egunotan, Valentziaren aurka jokaturako partiduan oso trebea dela erakutsi baitzuen, joku ona eginez. Zabalzak berak aipatu zuen «zelaian zegoen onena Angelov izan zen». Ostean, bulgariarra adierazpenak egitera ausartu zen, Iruñean dagoenetik egin ez baditu ere. Berak zioen, «Zabalzak aurtetik jokatzeko aukera izango nuela esan zidan», Ibañez Valentziara joan ondoren. Atzerritarra izatean aukera handirik ez duela izango azaldu zuen entrenatzaileak, beste hiru atzerritarrek asterotik titularrak baitira.

Eduardo Conde



Korrikako koordinatzailea

Iruñean hasiko da datorren hilabeteko 26an Korrikaren 8. edizioa, eta bederatzi egun beranduago Bilbon amaituko da. Eduardo Conde lesakarra da aurtengo koordinatzailea eta 'Denok maite dugu gure herria euskaraz' lemapean aurkeztu zuten pasa den astean Bilbon. Gaur goizean Nafarroan aurkeztuko dute, eta bertan Elena Etxalar eta Abel Castillo egonen dira. Osozara 2.120 kilometro korrikan egingen dira aurtun, eta Iruñean, hasierako egunean, sekula baino kilometro gehiago egingen dituzte. Osozara, bost egunetan ibiliko da Nafarroako errepideak zeharkatuz.

Xabier Amuriza



Bertsolaria

Iruñean egon zen pasa den asteartean Amuriza bertsolaria, 'Euskal barne urgentiak' titularekin mintzaldi bat emateko. Euskararen barne premiak eta arazoak aritu zen, hizkuntzaren egiturak berak ekartzen dituen mugak azaldu zituen. Hizlariak jakinerazi zuen lehendabiziko aldia dela honako kezka jendarean agertzen dituela, eta asmoa baduela entsaio bat idazteko. Barne arazoaren artean, konstatazioa, aditza, baita hizkuntzaren egituratik heldu diren arazoak, erlatibozko esaldiena kasu. Bi orduz aritu zen Amuriza euskaren urjentziei buruzko gai honekin.

ANTZERKIA



'Expropiados' izenburuko obra antzetzeko du bihar, otsailak 27, Arena Teatro taldeak, Iruñeko Gaiarre antzokian, Espainiako Antzerki Garaikidearen I. Erakustaldiaren barnean. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan izango da eta sarrerak 1.000 eta 1.500 pezetatan salduko dituzte.

IKASTAROAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolaturik. Orduetara 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

HITZALDIK



Euskararen Legearen aldaketa gaia hartuz, mintzaldi bat egonen da datorren asteartean, martxoak 2, Zaldiko Maldiko Elkarteak, Euskal Herriaren Euskaraz taldeak antolaturik. Mintzaldia arratsaldeko 8.00etan izanen da eta bertan Marmari taldea, Ikastolak, Euskal Herria Irratia eta Udal Euskaldunen ordezkari bana arituko dira.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunerò, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

HERRIZ BERRI

Berriozar-Basaburua

Soka tira eta tira Galesera

A. UNANUE / IRUÑA

Atzo goizean abiatu zen Berriozar eta Baztan-Basaburuko nesken sokatira taldea Gales aldera. Bertako hiriburuan, Cardiff-en, munduko sokatira txapelketa jokatu dute igandean. Nafarroako talde bakarra ariko da, 480 kiloko mailan.

Hamar neska joan badira ere, Cardiffen zortzi besterik ez dira lehiatuko. Berriozartik sei animatu dira eta Basaburutik gaintzeko laurak. Ana Gartxitorena Berroetako alkatesa eta sokatira taldeko partaideak esan digunez, arazo dexente izan dute kiloekin edo, hobeki esanda, soberako kiloekin. «Badakizu, hemengo neskek gara nahiko kokkorrotak», Gartxitorenaren esanetan, «eta pasatzen gara kiloz. Esate baterako, gibelean jartzen direnak handienak izaten dira, normalean 60 kilo pisatzen dute, baina gureak 76 pisatzen zuen, pentsa». Talde osoa baztandarrakin osatu ahal izateko, bosna kilo galdu behar zituzten Basaburuko neskek eta, jakina, errazagoa zen Berriozarko neskekin elkartzea, horiek nonbait argalagoak dira eta.

Galesera abiatu direnak duela bederatzita hilabete hasi ziren sokatiran. Nafarroako txapelketan bigarren postuan geratu ziren baztandarrak eta hirugarrenean Iruñerrikoak. Euskal Herriko txapelketan, berriz, elkarrekin aritu ziren eta seigarren lekuan gelditu ziren. Hala ere, munduko txapelketan parte hartu ahal izan-



Berriozar eta Baztan-Basaburuko sokatira taldeak munduko sokatira txapelketa jokatu du Cardiffen.

go dute, ez baitute eskatzen nor beraren lurraldeko txapeldun izatea. Ausardia pixka bat besterik ez da behar eta Mattari Altzuarte Basaburukoaren entrenatzaileak soberan dauka, berari bururatu baizitzaion urrutiko in-txaurren bila irtetea.

Bidaiaren eta egonaldiaren gastuei aurre egiteko dirulaguntzak jaso dituzte Berriozar eta Elizondoko udaletatik. Horrez gain zozketak egin badituzte ere,

Badakizu, hemengo neskek nahiko kokkorrotak gara eta kiloz pasatzen gara normalean».

30.000 pezeta inguru jarri behar izan ditu neska bakoitzak. Neskei ez zaie fan talderik faltako, berarekin hogeita zaletu joan dira eta, Zubietako Jon Mikel trikitilari tartean zela. Taldean ingelesez zekien norbait eramatea gomen-datu zieten antolatzaileek, baina inork ez omen daki. Moldatuko dira, hala ere, Ameriketara joan eta hizkuntzagatik galdu den baztandarrak ez da ezagutzen eta. Eta asko joan ziren.



DONEZTEBEko frontoia berri-tzeko lanak amaiatu dira duela gutxi, Nafarroako Gobernuaren 6,3 milioi pezetako subentzioarekin. Bertan teiltuan egin beharreko zenbait konponketa izan da lan handiena, eta lehengo estalpea, uralitakoa, beste txapa batekin ordezkatu da, 'sandwich' motatakoa, aislante barruan.

LIZARRAra joan beharko loteria erostera, bost egunetako epean bi sari jaso baititu Egako hiriak. Pasa den asteko ostegunean Fernando Pinillosek banatu zituen sariak, eta astearte honetan Alfredo Txandia saltzaile ezaguna izan zen: 50 milioi pezeta ONCE itsuen erakundeko loterian. La dena Lizarran bertan gelditu da, baina 10 milioi inguru Urantziara eta Bianara joan omen dira. Hala ere, saria oso banatuta dago, eta gehien kobratu lezakeenak bi milioi jaso lezake, normalean bi boleto baino gehiago ez baititu inork erosten. Hain zuzen ere, joan den asteko sariaren ondotik, franko igo da txartelen salmenta hirian, eta pentsatzekoa da aste honetan denei ezin salduz ariko direla saltzaileak.



BERRIOZARko Udalak bertan behera utzi zuen asteartean egin beharreko plenoa. Alfonso Alonso alkate sozialistak esan zuenez, Udalaren parean bildutako gazteek iskanbila sortuko zutela eta beldurra zeukan eta horregatik erabaki zuen plenoa ez egitea, istiluak ebitatzeko. Gazteek, 70 inguru, Gaztetxea oraindik iazko dirulaguntzen erdiak jasotzeko dituztela salatu nahi zuten. Gertatutakoa ez da berria Berriozarren. Alkateak plenoan 15 laguni besterik ez die uzten sartzen eta Udala «babesteko» Goardia Zibila deitu ohi du.

LESAKAN olio isurpenak atzeman dituzte Nafarroako Gobernu Ingurugiro zerbitzuek. Industriek erabilitako olio udal araztegiak sumatu zuten eta Ingurugiro Zerbitzuko zuzendariak esan duenez, «arazo larriak» sor ditzake depurazio prozesuan. Hori dela eta, olio edozein lekutan isurtzeko ohituraren kontra saiartzeko eskatu dio Lesakako Udalarari. Udalak bando bat plazaratzea onartu zuen aho batez, herriarrei eta lantegiei isurpenik ez egiteko eskatuz.

Tutera

Autobus geltoki berria eraikiko dute

TUTERA


Tuterako Udalak autobus geltoki berria eraikitzeko proiektua eztabaidatu du gaurko plenoan. Proiektuak PSOE eta UPN alderdien sostengua du. Beraz, ekimenak aurrera egingo du, Izquierda Unidak eta Batzarrek abstenitu egingo direla iragarri badute ere.

Hasiera batean, gaur egungo geltokia berritzeko asmoa zuen Udalak. Gerora, berriz, Renferen orubean geltoki guztiz berria eraikitzeko ideia nagusitu da. Eta Aurelio Rubio Hirigintz baztordeko lehendakariak herenegun jakinarazi zuenez, baztordea bigarren aukeraren alde agertu da.

Nafarroako Gobernuak 111 milioi pezeta (bost milioi libera


inguru) bideratu ditu proiektura. Hala ere, Geltoki barneko lanak eta azpiegiturak gehiago kostako dire. Aldea bere gain hartuko du Renfek.

Renfek martxoan amaitu aurretik aurkeztuko du erabateko proiektua. Apirila aldera Nafarroako Gobernuak berak adjudikatu ditu lanak. Lanak maiatzean hasiko dira, ziurrenik, eta lau hilabeteko epean amaitzea espero da. Etxebizitza berria gaur egungo tren geltokiaren alboan eraikiko dute. Horrela, itxaroteko areto bakarra egongo da, eta kafetegia eta gainontzeko zerbitzuak denek erabiliko dituzte. Geltokiko zerbitzuak, printzipioz, Tuterako Udalak kudeatuko ditu, Renferekin hitzarmen bat egitea baztertu ez badu ere.



Autobus geltoki berria Renferen alboan eraikiko dute.

ARTXIBOA



Kinka larria kooperatibendako

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Mintegi honen inguruan, eta Nafarroako kooperatibek aurrean aurkituko duten egoeraren berri emateko, txosten bat prestatu du Nafarroako Nekazal Kooperatiben Batasunak (UCAN), eta bertan gaur egungo egoera, aurrikuspenak eta balizko soluziobideak aztertzen dira.

Nekazal kooperatibismoa aitzindaria izan da Estatu osoan 1910eko uztailaren 22an lehen-dabiziko federazioa sortu zenean. Ordutik hona ibaiek ur asko eramanez, eta arazo frankori aurre egin behar izan diote, baina garbi esan daiteke oraingo kooperatibak —eta nekazaritza orokorrean— inoiz izan duten arazorik larrienaren aurrean daudela. Orokorrean esan daiteke egoera larria denei dagokiela, baina badaude aurre egiteko baldintza hobekak dituztenak, komertzializazio prozesuan emandako aurrerapausoak direla eta. Horregatik, txostenean bazkideek «goitik behera» hartu beharreko konpromisua aipatzen da soluziobide tajuzko gisa.


Hiru dira nekazaritza munduak luze gabe aurkituko dituen oztopo nagusiak: gaur egungo ekonomi krisia, GATTeako akordioak eta Europako Komunitateko Nekazaritza Politika Komuna (PAC). Azken honek bazkide askoren ekoizpena % 15ean jaistera behartuko du, ekoizpen orokorra murrizteko, eta kontuan hartuta merkatuaren prezioek ere nabarmen behera egingo dutela, kooperatibek jaitsiera garrantzitsua izango dute diru sarreretan. Halaber, PACen erreformak berak ahalegin administratibo handia eskatuko du dirulaguntza eskaerak bideratzeko, eta kooperatibek, kasu askotan, gehitu egin beharko dute horretan ari den langilegoa. Ondorioz, diru sarrera txikiagoak eta kostu handiagoak. Halaber, bizi den errentabilitate faltak eragina izango du nekazal populazioari eusteko, eta horrek kooperatiben komertzializazio ahalmena gutxitu egingo du, eta segurtasun falta horrek traba egingo die inbertsio asmoiei.

KOOPERATIBAK BATU BEHARRA

Hori dela eta, txostenak gastu finkoak murriztu beharra azpimarratzen du, eta horretarako bi irtenbide proposatzen ditu: komertzializazioa gehitu —bazkide berriak, kooperatiben batuketa edo elkar-teak— edo gastu horiek banatu, adibidez zenbait kooperatibaren artean. Irtenbide egokia bilatzeko errentagarritasunaren bila joan behar da, eta horretarako ere soluzio ezberdinak planteatzen dira. Denak bat datoz kooperatibak batu behar direla esatean.

Aste honetan zehar egin dute Iruñean Nafarroako kooperatiben birmoldaketari buruzko mintegia, Nekazal Kooperatiben Batasunak (UCAN) antolatutik. Europako Komunitateko Nekazaritza Politikaren aldaketak oso aurrikuspen latzak iragartzen dizkio 1909tik hona Nafarroako nekazaritzan pisuzko garrantzia izan duten elkarte hauei, eta egun duten azpiegitura eta osaketa ere ez da egokiena Europak jarriko dituen muga estuak gainditzeko. Adituen ustetan soluziobideak kooperatiben batasunetik etor liteke, kasu askotan, eta, beti ere, beren modernizaziotik.

Horretarako proposamenak, baina, traba handiak aurkitzen ari dira kooperatibetan bertan, eta batzuen beldurra ere bada elkarte hauek hasieran zuten izpiritua eta ezaugarriak —barne demokrazia, nekazarietako hurbiltasuna— ez ote diren galduko. Nolanahi ere, inoiz baino gehiago, birmoldaketak ezinbestekoa dirudi. Beste bat.



Proposamen eta ekintzak guztiak ikertu ahal izateko SENAI erakundeari azterketa serioa agindu zaio, eta bertan zehaztuko da nekazal kooperatibismoaren benetako egoera, arloka eta baita zonaka ere.

Nolanahi ere, Administrazioaren aldetik partehartze zuzenagoa eskatzen da prozesuan, dirulaguntzen bidez, eta horretarako bide berriak bilatzea proposatzen du txostenak, orain artekoek ez baitituzte behar ziren emaitzak izan. Horretarako, mintegi honetatik aterako diren proposamenekin Batzorde Teknikoa osatuko dute Nafarroako Gobernua eta Kooperatiben artean, prozesu guztiei jarraipena emateko. Bertan izango lirateke Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentua eta Ekonomia eta Hazienda Departamentuko ordezkariak, alde bategatik, eta UCANekoak, bestaldetik.



Laborea eta ardogintza izango dira kaltetuenak.

«Etsaiturik eta banandurik»

A. B. / IRUÑEA

Mintegiak izan dituen ponentzia eta mahainguru guztietan azpimarratu da kooperatiben arteko elkarlanaren beharra, eta hori dute koska handiena zenbait sektorek eta kooperatibismoak berak ere. Izan ere, mugimendu honetan aitzindariak izan ziren ardandegiak oraindik gaur egun oso lotuta daude sortu ziren herriekin, eta beren izakerak berak —tradicionalista samarra— ez dio etorkizunera begira behar den jarrerari bide ematen.

Andres Moreno Espainiako Nekazaritza Sustatzeko Institutuko (IFA) zuzendariordeak garbi azaldu zuen arazoa mintegiaren lehen-dabiziko egunean, koope-

ratiben arazoa soziala eta ekonomikoa zela esan zuenean. «Kooperatibek lau arazo nagusi dituzte aurrean. Lehen-dabiziz, txikiak dira oso; bigarrenik, diziplina falta handia dute bazkideen artean —produktuak entregatu eta jasotzeko orduan—; hirugarrenik administrazio kontseiluek aurrean duten lanerako hezkuntza ez dute nahikoa; eta kooperatiben arteko lehia oso gogorra da: etsaiturik eta banandurik daude egun».

Hain zuzen ere, EHNE sindikatuak protesta egin du mintegi honetan jasotako tratua dela eta. Izan ere, sindikatuak ez du UCANeko gonbidapen ofizialik jaso, eta soilik Nafarroako Gobernua bidali zien horretarako

deia. Mikel Petirena EHNEko buruak azaldu uenez, «kooperatiben etorkizuna aztertu nahi baldin bada, denon artean egin beharko litzateke, eta gure sindikatuaren barruan badago horri buruz zeresan handia duen jendea».

Gaur izango da mintegiaren azken eguna, eta kooperatiben mugimenduaren gaur egungo azpiegiturak eta etorkizunekoak aztertuko dira Perez Lapazararen kontseilaria izango den mahainguruan, eta ondoren birmoldaketa, Kooperatiben Foru Legea, finantzaketa eta hezkuntza jorratuko dituzte. Arratsaldeko zortzietan izango da mintegiaren amaiera ekitaldia Juan Cruz Alli lehendakaria bertan dela.

Nekazal  kooperatibak

mintzoak



Jose Maria Luqui, UCANeko presidentea.

OSKAR MONTERO

J.M. Luqui: «Krisialdian hasten da jendea pentsatzen»

A. B. / IRUNEA

EGUNKARIA.— Zuek egindako txostenean jende guztia arazoaz jabetu beharra azpimarratzen da. Zuen ustez, kooperatiben barruan ba al dago arazoaren larritasunaz kontzientzia garbirik?

JOSE MARIA LUQUI.— Nik uste dut baietz. Krisi garaian hasten da jendea pentsatzen. Garai onak direnean jendea ez da kezkatzen, eta ez du aldaketaren beharra ikusten. Baina orain bai, aldaketa hori gertu ikusten denean, daudden arazoei irtenbidea emateko beharra antzematen da.

EGUNKARIA.— Kooperatiba eta arlo guztiak birmoldatzeko beharra aipatzen da. Zeinek izan dezake traba handien, eta zeinek gutxien horretarako?

LUQUI.— Trabarik handienak ardoaren sektorean egon daitezke, nik behintzat horrela ikusten dut. Ardoak badu zerbaite berezia, eta horretan ari den jendeak beti uste du berarena hoberena dela, eta gainera horko kooperatibak zaharrenak dira. Horregatik, beste kooperatibekin biltzeari mesfintzaz begiratzen diote. Baldintzarik hoberenak olibaren sektorean egon daitezke, lehendabiziko pausuak eman baitira dagoneko, eta fruta eta baratzaizintzan ere aurrikuspenak onak dira.

EGUNKARIA.— Askok aipatzen ari da kooperatiben mundua kapitalismoa eta enpresa handien sistemarekin egokitu beharra. Horrek ez al dauka kooperatiben jatorrizko oinarriak —langileen partaidetza handia, barne demokrazia— hausteko arriskurik?

LUQUI.— Agian bai, baina ez da

nahastu behar ekoizpena eta komertzializazioa. Azken honetan egin behar dira ahalegin handienak. Ez du axolik lau kooperatiba izateak, baina bai laurak elkarrekin produktuak komertzializatzeko. Hau da, marka bakar batekin ateratzea. Produktzioan sakrifizioak egin beharko dira, jakina, baina arazorik handiena komertzializazioan dago.

EGUNKARIA.— Oraingoa kooperatibek inoiz izan duten une larriena izan daiteke?

LUQUI.— Bai, orain dator une larriena nekazaritzarako, Europako iparraldeko lurraldeekin parekatu behar dugulako, eta bertan izugarritzko produktioa eta prestakuntza handia dute. Gainera urte asko daramatzate Europako Komunitatean eta laguntza eta denbora franko izan dute birmoldaketa egiteko.

EGUNKARIA.— Hala ere, kooperatibismoak urte asko dauka, eta une larriak ere biziko zituen. Itxaropenik badago?

LUQUI.— 1908an egin ziren lehendabiziko batzarretatik hona beti errepikatu da lelo berbera: «Krisian gaude». Eta hori egia da, baina espero dezagun gobernuak konturatzea nekazaritza sendorik gabeko lurraldeak ez duela etorkizunik.

EGUNKARIA.— Eta zer moduko jarrera jasotzen ari zarete Nafarroako Gobernuaren aldetik?

LUQUI.— Oraingoa ona da, baina proposamenak biltzean eta azterketa serioa egiterakoan ikusi egin beharko da jarrera on hori zertan gauzatzen den. Garbi dago dirurik gabe ez dagoela birmoldaketarik.

● Mahai gainean izan ditugu 'Nafarroako Toponimia eta Mapagintza' sailaren lehendabiziko liburuak. Horiatariko batean, zenbait ohar metodologikoz gain, Iruña, Antsoain, Atarrabia, Barañain, Berriozar, Berriobeiti, Burlata eta Uharteko leku-izenen bilduma ikusten da, herri guzi hauetako leku izen bizien bilduma, hain zuzen. Gainerako hamar liburuetan argitaratuko dira Ollaran, Ergoiena, Burunda, Tuter eta Tuterako merinerriko herri askotako leku-izenak. Bilduma honi segida emango zaio Nafarroako herri guztiak argitaratu arte eta era honetan Trabajos Catastrales S.A.ko lan taldeak 1990an hasitako lana denen eskuetara ailegatuko da. Aurrera egin baino lehen aipatu behar da Arazuri jaunak egindako lana, hari esker jantzi dugu gure liburua, eta Jose Maria Jimeno Jurio, laister Iruñeko toponimia erabat agertuko duen lanagatik.

Normalean leku-izena jaiotzen tokian hiltzen da. Hala ere heriotza ez da beti etortzen eta batzuk ehundaka urte irauten dute (eta Nafarroan ez dira falta mila urte baino gehiago dituztenak), jaiotzeko zentimetro bat ere mugitu gabe. Gehienez ere, baten bat, abenturazaleena, ibaiaren bestaldean ikusten dugu, baina esan bezala urriak dira era honetakoak. Iruñean, hiria delako edo, oso bestelakoak dira. Hemen zazpi-zortzi leku izen mugikor dauzkagu, gehienak Iruñeko hegoaldean. Honen arrazoia udaletxe eta leku izenen arteko harreman berezia izan daiteke, begi bistakoa baita udaletxeak izenetan izan duen eragina. Adibide bat. Gaurko Erletokietan (Abejeras-en ondo ondoan) beti Erletogieta izan da, udaletxean, auskalo zergatik, bestela erabaki arte. Hots, izen zaharra baztertu zen haren antza zuen beste bat sortuaz, Erletogieta, udaletxean bertan jaiotako izena. Baina ez pentsa udaletxeak beti horrelakoak egin dituenik. Beste batzuetan kontu haundiz jokatu du izenen erabilera jendearen traba egin ez ziezaien. Gurutzeen kasua esate baterako. Hiru ziren gurutzeak: La Cruz Blanca (Gurutzetxuria ere deitu izana), La Cruz Negra eta La Cruz Verde. Hasieran aurreneko biak berririk ez zeuden. Hirugarrena beltza zen zurezko gurutzearen lekuan paratu zen eta zaharra hegoaldera eraman zen. Hara ze buruhauste jendearentzat! Gurutze beltza ja ez zegoen La Cruz Negra-n. Udaletxeak azkar konpondu zuen afera. Gurutze berria beltzez pintatuaz zuten (gurutze hau Foru

PLazan ikus daiteke oraindik ere) eta zaharra berdez.

Bestalde, izen ibiltarien koadrila dago: hegoaldeko Sario, Arrosadia, Azpilagaña; hiriartetik Fuerte del Principe, Argarai, Larraintxiki; iparraldeko Txantrea eta Aieka.

Sario non den galdetuko bagenu, norbaitek jakinen balu, UNED den tokian paratuko luke, hots El Sario edifizioak hartzen duen alderdia. Baina Sario gaur egun Pamplonica den alderdian zegoen, Iruñeko udalaren txakurtegia hain zuzen ere. Eta sario horretan izaten ziren belarrekin (sario, sarobe, eta saroi gauza bera dira) bazkatzen zituzten Sanferminetan hil beharreko zezenak zezen-plazara bildu baino lehen. Arazurik behintzat horrela dio.

Arrosadia, berez, oso zabal zen, gutxi gorabehera gaur Milagrosa izenarekin ezagutzen den guzia. Gero eta ahaztuagoa, luzaro iheska ibili ondoren, Sadar ugaldearen parean eta Arangurenekin muga egiten duen etxemultzoan aurkitu zuen azkeneko errefujioa. Zorionez handik berriz ere zabaldu da. Berriki eraikitako polikiroldegiak eta parke batek bueltatu dizkiote galdutako metro batzuk eta gainera, euskaraz, berreskuratu da jatorrizko zabalera. Galbidea El Mochuelo gerrilari liberalak ekarri zion, honengandik hartu baitzuen izena gero Iruñeko auzorik itsusiena izan zenak. Geroxeago jendeak, izen lotsamangarri honekin nazkatu zenean, eskatu zuen auzoaren izena alda zezaten eta holaxe Milagrosa sortu zen, eta izen berria, Amabirjinen laguntzaz, egiten ari ziren etxe berri guzietan barrena zabaldu zen.

Azpilagaña izena inork ez daki nondik heldu den. J.M. Jurio dio alderdi horri Obiagaña esan zaiola. Arazurik Donapea aldetik etorri dela. Eta hala da ene ustez. Hor Ezkirotza igo behar den aldapa horretaz bestaldean, Ezkirotzen, Izpiltze (Aizpiltze eta Ezpiltze ere deitua izan da) izeneko herri hustua zegoen. Gainera jakina Izpiltze-gaia zen. Gain honi, berriz, iruñarrek Azpilagaña edo Ezpilagaña esaten zioten eta handik, azkeneko hamar urte honetan, kilometro bateko saltoa eginaz, eremu berria hartu du.

Larraintxiki eta Argarai hirien hazkundearen biktimak izan dira. Biak Iruñaren harresiaz kanpora. Ensanchean lehenbizikoa eta Media Lunan bigarrena. Hiria zabalago egiten zen heinean izenak haratago joaten ziren. Eta orain Argarai Seminario ondoko etxe dotoreei esaten diegu eta Larraintxiki, berriz, kasik galdu-

ta, Oberena aldera kokatzen dugu.

Fuerte del Principe gaur CAMPen Igerileku estalia den toki berean zegoen. Arazurik garbi dio. Hala ere batzuk goardia zibilaren koartela ondoko parajeari izen hau eman zioten bitartean beste batzuk Oberena aldeko alderdiak, ikastola ondoko parkea esate baterako, baitaiatu nahi izan dituzte izen horrekin. Berriki, gainera, Txaxoareko errepedean eraikitzen ari diren bulego inteligente berririk ere izen preziatu hau egin dute bere, nahiz eta bulegoie emandako adjetiboa ez ezkondu oso ongi leku-izen honekin. Agi denez, Printze ezzagun honek ederki asko engainatu ditu.



Iparraldean mugimenduak ez dira horren garbiak. Txantrea zabaldu da beste kalteetan. Aurreneko etxeak zer dira, Magdalena ala Txantrea? Aieka berriz ez zegoen Txantrean Burlatan baizik. Ezkaba abandonaturik utzi dugu ORVINA, erakunde pribatu baten izena, nahiago izan dugulako.

Liburua irakurri ondoren gaizki aprobetxatutako altxorra dugula iruditzen zait. Izen ziztrinak asmatu ditugu eta izen zahar ederrak baztertu ditugu. Azella kale labur bat berririk ez da gaur. Zergatik ez esan Azellako Kanpusa? Hona hemen unibertsitarien lana. Baita besteentzat ere UPNaren Kanpusa esan beharrean, Arrosadiako Kanpusa esanen balute (eta horrela egiten dute) mila aldiz hobe. Irunlarrea ere kale izen batekin enterratu dugu. Orain Mendebalde esaten dugu, marketing asmo garbiek bultzatuta, nahiz eta Mendebalde bulego batean jaiotako izena izan. Ermitagañarekin aski genuen baina izen honek pobre usain omen zuelako ez zen egokia milioi askotxoko etxeak ongi saltzeko, erosleak pisuarekin batera izena eta honen lotua dagoen prestigioa ere erosten baitu. Begi bistakoa da ez dela gauza bera 'Ermitagañan bizi naiz' eta 'Mendebaldean bizi naiz' esatea. Marketinga errespetatuaz aski zen Irunlarreatik tiratzea, eta Iruñeko leku izenen elastikotasuna konprobatua dagoenez, segurtatua genuke gure historiaren berri ematen digun izenaren osasuna.

Lerro hauetatik Udaletxeari, eta Nafarroako udaletxe guzietan, luzatu nahi diegu gure laguntza altxor hau merezi duen bezala goza dezagun.

Gazteendako Zokoa

Okil beltza

Dryocopus martius
Pagadietan gustura
Iratin bereziki
Nafarroan urria




Beltzgorri

Okil guztien artean antz bereziena dauka beltzak, eta horrek ederki ezaguna egiten du. Beltza da goitik behera, eta buruan zenbait luma gorri dauzka arrak. Emeak, puntu gorri bat garondan. Gustukoak ditu zuhaitz zaharrak dituzten baso trinkoak, eta bere moko sendoari esker enbor zaharretan bizi diren pipiak jaten ditu. Lurrean ere txinaurri gorriak harrapatzen ditu.

Otsailetik aurrera sortzen duen zarata ezaguna adi daiteke basoetan, eta horretarako hosto lehorrak kolpatzen ditu okil beltzak. Bikote bakoitzak eremu zabalak menderatzen ditu, eta okil guztiek bezalaxe, zuhaitz zaharrak aukeratzen ditu kabia egiteko. Berarenak 20 zentimetro inguruko diametroa izaten ohi du. Bertan lau arraultze bitarte erruten ditu emeak, eta 12-14 egunen buruan ateratzen dira txorikumeak.

Nafarroan pagadi, pinadi eta hariztietan bizi da, eta Aralar eta Larra bitartean aurki daiteke. Azken hau da, hain zuzen ere, ingururik egokiena, eta 1.600 metrotaraino hel daiteke. Kopururik handienak Iratin daude, baina ez da oso ugaria Nafarroan.



LIZAR LORA ETXEPARE

Behin artikulu bat irakurri nuen, drogen legeztapenari buruzko liburu batena, hain zuzen ere. Artikulu honek, drogei buruz beti izan edo entzun nuen ikuspuntua beste alde batetik begiratuta, lagundu ninduen.

Drogei buruz oso ideia okerra gureganatu dugulakoan, ondoren azaltzen ditut nire usteak arazo eztabaidatsu honekiko.

Jende askoren 'errepresio' eskearen aurrean harriturik gelditzen naiz, ez baitira konturatzen trafikatzailer txiki eta kontsumitzaileak, hala nola *junkiek*, prostituta, kamelloen aurka joanez gero gure gizartearen sektore zapalduenaren aurka joaten garela, gazte jendea eta txiroenak, alegia.

Gainera, trafikatzailer txiki eta kontsumitzaileei eraso egiten diegu nahiz eta goragokoak izan merkatu 'emankor' honen kontrola dutenak. Baina inoiz ezin izango da hauek harrapatu, boterea kontrolatzen baitute, gehiengoa zapalduz.

Drogak

Mundu honen antolamenduak agerian uzten duen adibidea daukagu hau: Europar egindako azken sarekan, Espainiako Estatuan zegoen arduradun nagusiak ihes egin zion polizia. Nola izan daiteke? Eta beraiek onartzen dutenez, barne ministerioko norbaitek emandako abisuari esker gertatu zen.

Beraz, errepresio handiagoko eskatzean beraien jokoan sartzen gara, beraien lege harrigarri eta polizien ekintzak justifikatzen baitituzte jende ugariaren segurtasuna aitzakiatzat dutela.

Drogen kontsumoak ez du zergatik txarra izan behar; bai, ordea, gehiegizko edo informazio gabeko beraiekiko harremana. Droga ilegal bat probatzeak ez zaitu beraren menpeko izatera behartzen, baso bat ardo hartzeak alkoholiko bihurtzen ez zaituen bezalaxe.

Urteoro 300-400 lagun bat hil liteke gaindosiak direla eta, baina, ordea, 8.000ren bat hiltzen dira gibel zirrosiak jota eta 40.000ren inguru dira tabakorekin zerikusia duten heriotzak.

Guzti hau alkoholak eragindako istripu, bortxaketa, hilketak, eta abar, kontutan hartu gabe. Beraz datu hauek deuseztatu egiten dute droga legal eta ilegalak bereiztearen hartzen dugun irizpide nagusia, osasuna, alegia.

Arazo hauen —eta kontuan hartu ez ditudan batzuenak: delinkuentzia, manifestazioak...— amaierarako nere uestezko irtenbiderik bidezko eta hobereena drogen legalizazioa litzateke, hori bai, informazioa beharrezkoa izango zen. Legalizazio honek arazo askoren konponbidea ekarriko zuen, hala nola:

—Justizia ez litzateke gazteen atzetik ibiliko, edo gutxiago.

—Prezioen jeitsierak delinkuentzia ere gutxituko luke.

—Preso gazteen kopurua ere jeitsiko litzateke.

—Adulterazioarekin lotutako heriotzen murrizketa izango litzateke.

—Bazterkeriari aurre egingo genioke.

Entzun edo irakurritakoak drogei buruz zerbait pentsatzera bultzatu zaituela espero dut.



BASAJAUN

Interes ekonomikoek ekologia zein bizidunen genak manipulatzen dituzkete, haiengandik probetxua ateratzeko.

Oso ezagunak dira azken urteotan nekazal industrian izan diren azken aurrerapen biologikoak. Horrek posible egin du, garaiz kanpo ere, frutak, barazkiak eta abar kontsumitzeko aukera, elikaduraren onerako. Baina beharrezkoa dira legeak eta portaera etikoak ezartzea jarduera hauetan parte hartzen dutenen artean desorekak izan ez daitezten. Horrela, Europako Komunitateak 1990ko irailan planteatu zuen ingenieritza genetikoaren bidez lortutako landare, animala eta baita gizakumeen zati batzuen patente genetikoak izan beharra. Proposamena 1990ko urrian onartu zen, baina irudia garbitzearen —Genetic Resources Action Internationalaren (GRAN) arabera— botoa ematerakoan pare bat enmendakin sartu ziren, patentearen kobraketei trabak jartzeko. Horrek erakusten du garbi gai honi buruz azterketa serioa egiteko dagoen interes falta.

Honek eragin zuzena dauka nekazari, ganaduzale, kontsumitzaile, eta ikerketa eta merkatuaren inguruko harremanetan, eta baita portaera erlijio zein etikoengan ere.

Nekazariak beharturik daude multinazionalen menpe egotera, animala zein landare espezien eskubideak izateko, hauen ama bakarra Natura izanik ere. Hazien prezioek gora egingo dute horrela, eta nekazariak ezin izango dute bere espezieak berri, indarrean dauden kanonak ordaindu gabe. Multinazionalak horren kontrola lortuko dute, eta hortik kanpo dauden guztiek ezin izango dute ezer egin.

Jenero Xumekoak

Andoni eta Koldobika

L ehendabiziko amodioa ez dela ahazten, ez dugula atzenduko esaten dik tangoak. Eta tangoak amodio aferetan oso trebeak dituk. Batez ere harekin ezkondu baldin bahintzen, erantsikoniak nik, Koldobika. Orduan, Koldobika, aisa zailago. Hori, Andoni, goiz jaikitzen denari Jaungoikoak laguntzen diolako bezalako duk. Ironia hutsa, ironia besterik ez. Makina bat emakume ezagutu eta gero, ohetik jaiki berria, edalontzi bat biski eskuen artean, zezanak nola txuliatzen joana den gizon baten uestea, Andoni.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Manifestua
2. Buztan
3. Herri nafarra
4. Hertsia
5. Iraganak

1	2	3	4	5
1	2			
3				
4				
5				

1. Herri nafarra
2. X. hilabetea
3. Komunikabide
4. Itxura
5. Behizainak

1	2	3	4	5
1	2			
3				
4				
5				

1. Kanpoaldi
2. Ale landarea
3. Herri nafarra
4. Gau ondokoa
5. Alde eginak

1	2	3	4	5
1	2			
3				
4				
5				

Zaharrak berri

Gauza altxatua, urre gorri.
Gauza altxatu: gorde, izkutatu.

Sunbilla

Merkatuan:

—Aizu, sagar horiek bertakoak ala kanpokoak dira?

—Zer ajola! Jateko edo beraiekin berriketa egiteko nahi dituzu?

Bizi Bizian

Eguzki Irratia zurekin, ehun ta bost kakotx lauean». Esaldi hori, hamar urtez, egunero entzuteko aukera izan da dialaren ezkerreko izkinan. Lehen hamarkadara sasoi onean heldu da

Iruñeko Alde Zaharreko irrati librea, baina sasoi hori hobetu nahian, Eguzki Irratiko gizon eta emakumeek urriko bigarren asteburua Lakabeko herrian eman zuten, irratiaren arazoak, oraina eta geroa aztertzen.

Hamar urte uhinetan libre

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

1982ko abenduaren 15ean, gaueko hamarretan, Eguzki irratiaren ahotsa estreineko aldiz aditu zen dialaren ezkerrean, 105'2an. Horrezkero, hamar urte eman ditu Eguzki uhinetan libre, zenbait etenaldirekin, noski. Hamar urte hauetan poliziak lau aldiz itxi du eguzki irratiaren ahoa, baina rockero zaharrak bezala, irrati zaharrak ez dira inoiz hiltzen, ezta isiltzen ere, eta dagoeneko hamar urte bete ditu Eguzki Irratiak, Iruñean tinko dirauen irrati libre bakarrak. Lehen hamarkadara sasoi onean heldu da, eta sasoi horrek hoberrantzo zezan, urriko asteburu bat eman zuten Lakabe herrian irrati gizon eta emakumeen arazoak, oraina eta geroa aztertzen.

«Ezkerralde politikoan mugitzen den jendearen erreferentzi puntu bat izan nahi dugu, jende horren artean eztabaida sakonak bultzatu nahi ditugu, eta aldi berean irrati entretenigarria izan nahi dugu, ezkerre mugitu horren barnean ez daudenentzat ere irrati entzungarri eta entretenigarria izan nahi dugu». Lakaben hitz egindakoaren arabera, Ruben Marcillak — urteotan motorea izandakoak — modu horretan azaltzen du Eguzki irratiaren.

HELBURU ZEIN ARAZOAK GARBI

Beraz, helburua zein den argi dago, helburu horretara ailegatzea oztopatzen duten arazoak zeintzuk diren bezain argi. Arazo horiek bi motakoak dira, hala nola irrati libre bati ezlegala izateagatik kanpotik datozkion arazoak eta irratiak berez dauzkanak, barne funtzionamendua eta irratsaioen kalitate eta edukiari dagozkienak hain zuzen ere. Marcillak dioenez, ezlegaltasunaren arloan sakondu ez bazen ere, Lakaben aurrerapauso nabariak eman ziren barne arazoei dagokienez. «Emisioaren kalitatean inoiz baino hobeto gaude, baina hobera egiteko beharra ere ikusten dugu. Maila igo denez, lehen saio arruntzat jotzen genituenak orain txarrak dira uste dugu». Irtenbide bat emateko, Eguzkiko irrati tailer bat eratu dute.

Dena den, Eguzkiko partaiden iritziz, argi dago emisioaren kalitatea nabarmen hobetu dela; izan ere, horren poderioz kolektibo anitzen konfidantza bereganatu du. Iñaki Alforja irratiaren kidearen esanetan, «denbora luzez komunikabide ofizialek ematen zizkieten apurrik nahiago izan

dituzte, eta komunikabide propio bat aurrera ateratzea baztertu dute, hau da, Eguzki irrati baztertu dute. Gauzak aldatzen ari direla uste dut». EHGAM, Alde Zaharreko Emakumeen Elkarteak eta Okupek kolektibo moduan egun saioak egiten dituzte Eguzki irratiaren.

EUSKARAREN ERRONKA LATZA

Lokutoreek airtortzen dutenez, egun euskara Eguzki Irratian ez da behar adina aditzen, azken urteetan euskaraz egiten diren saioen kopuruak eta erabiltzen den euskararen mailak gora egin badute ere. «Irratian badago euskaraz hitz egiten dakien jendea, baina badakizu jende aunitz entzuten duela zuk esaten duzuna eta gaztelaniara jotzen duzu ziurtasun gehiagoren bila. Aldi berean, irratiak kalean gertatzen dena islatzen du eta kalean euskaraz hitz egiten dakien askok ez du euskara erabiltzen». Erakunde euskaltzaleek nolabaiteko eragina izan dute honetan. «Haiek beste irrati baten alde egin dute apustu, Euskalerrria irratiaren alde. Ongi iruditzen zait, baina hutsune bat utzi dugu horrek».



Aunitz urtez!

J. K. L. / IRUNEA

1982ko abenduaren 15ean Eguzki Irratia emititzen hasi zenean gutxiak pentsa zezaketen hamar urte emanen zituela uhinetan libre. Paraiso, Eate eta beste irrati libre anitz bidean geratu dira, eta jadanik Eguzki Irratia da tinko dirauen bakarra. Ia ahaztuak daude dagoeneko irratiak Antinuklear eta Ekologista Taldearen eskutik eman zituen lehen urratsak, eta 1983ko apirilaren 14eko lehen 'txapea'. Jakina, lehen itxiera hori ez zen erabakiorra izan, eta 1984eko urtarrilean irrati berriz martxan jarri zen. Martxoaren 20an ordea, poliziak berriro ere itxi egin zuten Eguzki irratiaren ahoa, Paraiso irratiarena bezalaxe. Maiatzaren

Irratiaren kronologia

Lehen Eguzki irratiaren ahotsa dialaren ezkerrean entzungai izan zen berriro ere.

Geroztik, 1988ko otsailaren 9ra arte irratiak, udako oporrak alde batera utzita, etengabe emititu zuten. Nabarmen sendotu zen irrati urte horietan, eta irratiaren barnean mugimendu sozial berriak sortu ziren, Katakarak okupatzaileen mugimendua horien artean. NATOren erreferendumean Eguzki irratiak gogor egin zuten apustu ezetzaren alde. Horren ostean beste kanpaina anitzetan murgildu ziren irratiak, eta 1988ko otsailean Erret familia Iruñera etorri zenean gogor ekin zuten bisitaldiaren kontra. Otsailaren 8an poliziak eta manifestariaren arteko borroken berri eman zuten irratiak, eta polizien mehatxuak eta Errege-Erreginen bisitaldiaren kontra zeudenen adie-

razpenak aditu ziren 105'2an. Horren ondorioz biharramunean poliziak irrati itxi zuten, hirugarren aldiz, eta bi pertsona atxilotu zituen.

Otsailaren 27an irrati berriro ere martxan zegoen, eta martxoan 2.000 pertsonak Eguzki irratiaren aldeko manifestazioa egin zuten Iruñean elurraren pean. 1989ko azaroaren 20an azken itxieran atxilotutako lagun bat epaitu zuten, eta libre aterazten epaiketa horretatik. 1991ko maiatzaren 27ra arte berriro ere sendotze bidea hartu zuten irratiak. Greba egun horretan saio berezia egin zuten irratiak poliziak ailegatu zen arte. Ekainaren seian Eguzkiko lokutoreek beraien lana egiteko ekin zituzten berriz, eta gaur arte nabarmen sendotu dute irratiak. Egunean 24 orduz emititzen du Eguzki irratiak.

Angel Oloron

.....mendizalea

Heldu den igandean, otsailak 28, irekiko ditu berriro ateak eraberritutako Belagoako aterbeak. Beharrezkoak zituen konponketekin batera, eraberritzeak izen aldaketa ekarriko dio, aterbeak, bere eraikuntza eta berrikuntza gestioetan arduradun izan den gizonaren izena izanen baitu aurrerantzean: Angel Oloron.

«Belagoan ahal bezain gutxi eraikiz gero, hobe»

GAIZKA ARANGUREN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Noiz eta nori bururatu zitzaion Belagoako Aterbeari izena aldatzeko ideia?

ANGEL OLORON.— Aspaldiko kontua da. 1971ko udazkenean, aterbea eraiki zenean, nire izena paratzeko asmoa azaldu zen jada. Garai hartan ni Deportivo Navarrako zuzendaritzan nintzen eta hasieratik galerazi nuen asmo hura. Iazko udazkenean, ordea, aterbea berritzea oso aurreratuak zirenean, egungo Zuzendaritza Batzordeak bere erabakiaren berri eman zidan. Erabaki ondoren jakinarazi zidaten!

EGUNKARIA.— Zein eratako erantzuna izan zen zurea, bada?

OLORON.— Bon... Bapatekoa... «Kirtanak!!» oihukatzearena. Gero... Benetan eskertzen duzu. Egia erran, nire emazteari, Paquitari zor diodan adeitasunak bultzatuta onartu dut hein handi batean. Aterbeak izanen duen plaka berriaren erdia berari dago; izan ere, eskertu nahi didaten urte aunitzetako lana ezinezkoa zatekeen Paquitaren laguntza izan ez banu. Bertzalde, Deportivo Navarran lanean eman ditudan ordu guztien ordaina dela uste dut. Urte aunitzetan 'eguneko bulegotik' (ohizko lanetik), 'gaueko bulegora' (Deportivo-ra), nindoala leporatu didate sendeek.

EGUNKARIA.— Ez da oso normala, omendua bizirik izanda, era honetako izendapenik egitea... Gainbeheran ikusten zaituztela uste al duzu?


OLORON.— Ez!! Nik berdin berdin jarraitzen dut klubera lanean. Nire bizia izan da eta da oraindik. Hau ez da lehen omendaldia. Belaunaldi ezberdinak pasa dira klubetik eta guztietara moldatu naiz arazorik gabe. Nire laguntza baliagarria den heinean eta nire burua mendian ibiltzeko gai ikusten dudana bitartean ekimen diot lanari.

EGUNKARIA.— Hilaren hasieran komunikabide batek ezagutzera eman zuen Belagoako Aterbearen izen aldaketa. Albiste berean erraten zenez, erabakiak ez du Erronkariko ibarrek biztanle aunitzen oniritzia izan.

OLORON.— Irakurri nuen bai, eta albiste hori dela eta dei batzuk jaso ditut Erronkaritik. Dei hauek erran didatenez, izen aldaketaren aurkakoak gutxi batzuk dira. Nolanahi ere, harritu egin nau hori jakiteak; Deportivo Navarra errespetu osoz aritu da beti Erronkari haraneko biztanlegoekin eta bere ordezkariekin.

EGUNKARIA.— Zer deritzozu Belagoako eski pisten hedapen berriaz, eta oro har Pirinioetako ibar horretan egin nahi omen duten urbanizazio prozesuaz?

OLORON.— Ez daitezela pasa...



Club Deportivo Navarrako presidentea izan da Oloron.

OSKAR MONTERO

Bon, nire ustez, eskualdeko erreserba natural eta integralak errespetatzen badira ez da ezer gertatzen, eta erran dutenez hala da. Baina bertzalde, talde batzuek salatu egin dute proiektua. Nik beldur diot. Gainera, nik ez dakit Erronkariko Pirinioetan behar bezainbat elur dagoen inbertsio handiak egiteko.

EGUNKARIA.— Eta oro har, nola dakusazu Belagoa etorkizunean? Belagoa 2100. urtean.

OLORON.— Ba, poliki-poliki

obrak egingen dira. Nire iritziz ahal bezain gutxi eraikiz gero, hobe. Baina ebitaezina dela uste dut. Jarrera hau berekoikeriaz jo dezake inork, badakit. Baina argi dago 2100. urtean atsedenaldirako eta turismorako lekua izanen dela. Hiriaren bizi-moduak arazo aunitz ditu eta jendearen bizi-maila igotzen joanen da...

EGUNKARIA.— Eta hori guztia nola hartzen duzu: tristuraz, etsipenez...

«Ehiza harrapakaria da»

G. A. / IRUÑEA

GALDERA.— Mendi bat.

ERANTZUNA.— Vignemale (3.298 m).

G.— Amestutako baina lortu gabeko gailurra.

E.— Els Encantats (2.747) (Lleida)

G.— Igo ez duzun Nafarroako gailurren bat.

E.— Bat ere ez.

G.— Gehien igo duzun mendia.

E.— Hiru Erregeen Mahaia. 26 aldiz.

G.— Deportivo Navarra ez den Nafarroako bertze mendigoizale klub bat.

E.— Anaitasuna.

G.— Zer egiten duzu, mendian, zoazelarik, bide batean 'Jabego

pribatua. Pasabide debekatua' afitxa ikusten baduzu?

E.— Lekua inguratu edo pasatzeko baimena eskatu.

G.— Ehiza, kirola al da?

E.— Ez. Harrapakaria.

G.— Zuhaitz bat, txori bat eta urtaro bat.

E.— Haritza, urretxindorra eta udazkena.

G.— Mendigoizalearen oinarriko jarrera bat.

E.— Beharrezkoa da nolabaiteko oreka mantentzea mendietako kirol ekintzetan. Konkista izpirituarekin batera, mendia eta bertako biztanleen adiskide izan.

G.— Liburu bat.

E.— 'Montañas de mi juventud', Arnold Lunn.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERQA

